

Hemezortzigarren mendeko bertsoak

FRANTZISKO ONDARRA*

Hemezortzigarren mendeko hitz neurtuz egindako testuak ematen ditugu ezagutzera. Lehenbiziko testua 1747. urtean izan zen inprimatua, eta uste dugunez ez da ezaguna gure artean gaur egun**. Konpainia-koek Salamanca-n zuten ikastetxeko jesuita gazteek omenaldi berezi bat eskaini zioten handikiro, hil berria zen eta Espainiako errege izan zen Felipe V.ari (1683-1746), bertan hizkuntza askotan hitz neurtuzko konposizioak aurkeztu zituztela. Beste testuak erlijioari buruzkoak dira ia denak, alor horretan sartzen ez direnak gaztelaniaz eta latinez dauden zenbait gauzatxo direla.

1. TESTUA

1. Testuaren deskribapena

Felipe V.ari eskainitako olerkia 1747. urtean dago irarria Salamanca-n. Ageri den liburuak 82 orrialde ditu zenbatuak, horien aurretik eta zenbatu gabe daudenetan hitzaurrea, baimenak etab. ageri direla. Beste zortzi liburu-rekin batean dago josia eta larruz estalia, bizkarrean *Coleccion Varia* dioela. Oso gai desberdinak ukitzen dituzten liburu laburrak dira, eta leku diferenteetan inprimatuak izan dira. Gurearen izena etab. honelakoak dira:

* Euskaltzaindia.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Miguel Sánchez Ostiz, Nafarroako literaturagile gazte, oparo eta izen handikoari, eta Eduardo Gil Bera, pentsalari euskaldunari, beraiei zor baitiegu argitara ematen ditugun euskal testu hauen berri ezin hobea.

** Ik. Jon Bilbao. *Eusko Bibliographia*. VI. liburukia, 558 or.: *Parentación solemne...* Salamanca, 1747. Hau irakurtzen dugu sarrera horretan: *Endechas reales en bascuence* direla-ko horiek izan zirela berri argitaratuak in *Euskal Erria*, 1885, XII, 5.

“Parentacion solemne de sufragio y obsequio, que a la augusta memoria del Rey Nuestro Señor Don Phelipe V., que de Dios goza, tributó el Real Colegio de la Compañia de Jesus de Salamanca, dedicada al Rey N. Señor, que Dios guarde, por mano del Excelentissimo Señor Don Joseph de Carvajal, y Lancaster. Sale á luz con las licencias necessarias. *En Salamanca: Por Antonio Villargordo. Año de 1747*”.

Fernando VI.ari aurkezten diote omenaldiaren fruitua, honela mintzatzen direla:

“A los reales pies de V.M. Sus fidelissimos Vasallos y humildissimos Siervos En nombre de toda la Religiosa Juventud Jesuita de este Real Colegio.

JHS.
Juan Domingo Junibarbia.
Decano.
JHS.
Joseph Petisco.

JHS.
Domingo Urbina, y Thébes.
Bedél de Theologia.
JHS.
Joseph de Aranguren, y Arizaga”.

Aurkezpena honako handiki honen bitartez egiten dute:

“Don Joseph de Carvajal y Lancaster, Decano del Consejo de Estado de Su Magestad, Su Ministro de Estado, &c”.

Carvajal jaun hau gizon pakezale eta prestua izan zen, kultura bultzatu zuena eta guztiz estimu handitan izan zena.

2. *Liburuaren edukia*

Lehenbizi hitzaurrea, aurkezpena eta baimenak datoz. Gero, hiletetan eman zen hil hitzaldia, dena latinez, hitzaldi egilea hau izan zela:

“P. Ignacio Ossorio y Guzman, Maestro de Sagrada Theologia, y Cathedratico de Tercia en este Real Colegio; y cautivó con el sentido, estilo, y modo, las atenciones del Auditorio, que dió visibles señas del gusto, y aprobacion, con que le escuchaba, y se explicó despues en los mas encarecidos elogios”.

Ondoren, 35-82 orrialdeetan “Varias piezas de ingenio, y de numen poético” ematen zaizkigu, honela: latinez 36-48. orrialdeetan, grekoz 39.ean (sic), gaztelaniaz 49-76. orrialdeetan, frantsesez hamalaudun bat 76.ean, italianoze beste bat hor bertan, ingleseze bi poema 77.ean, portugesez hamaludun bat 78.ean, euskaraz “Endechas Reales” 78 eta hurrengoan, 79.etik bukaeraraino latinez Philodorus izeneko egloga bat.

3. *Nork egina*

Euskal olerkia Gaztelako olerkari batek egina omen da. Patxi Altunak dioskunez, baziren Salamanca-ko ikastetxean euskara ikasi zuten Gaztelako semeak, han zeuden euskaldunek sortutako giroaren ondorioz. Larramendi ere han ibilia zen eta beraren ohiartzuna entzungo zen oraindik noski.

4. *Nongo euskara*

Argi dago gipuzkera erabili dela testuan. Oraingo gipuzkeran erabiltzen ez diren zenbait hitz ageri dira, hala nola *baize* 'baizik' 2 eta 7. bertsoetan, *eroan* 'eraman' 5, eta *leguez* 'bezala' 10.ean. Bigarren bertsoan *ilt* 'hil' ikusten dugu, Nafarroako Goñibarren aurkitutako zenbait predikutan falta ez dena.

ENDECHAS REALES

En vascuenze, con la circunstancia de haverlas compuesto un Poéta Castellano de nacion, en alabanza del Rey Phelipe, y obsequio al mismo tiempo de la Lengua Vascongada.

Il ote da Phelipé?
 Báietz esaten dá:
 Bai; badá Erregueac ere
 Viurtú veardute berriro lurrerá.
 Aurtén il da, diote,
 Guré Erregué oná;
 Esán, beardá aleré,
 Verá ilt zelá ez aurtén, baize ainchiná.
 Erreguén iltzea zer
 Dá; Coroiá utsizéa;
 Ta cembát urte da, ze
 Utsizuén gure Phelipe coroiá?
 Ez negár orregatic,
 Españárrac, ez negár,
 Baldín ain ainchinatic
 Vadatór guré Erreguearén eriotzá.
 Ordubatean, diotenez
 Eroán ¹ zuen eriotzac;
 Baña verác urte ascó
 Pozic eguín zituen eriotz oroitzeán.
 Odolca suca sartu
 Zan Phelipe Españará;
 Veré eriotzac orregatic
 Quencen eztigú daucagún vaqueá.
 Ain ondo viciric,
 Ezbildúr bere animaz;
 Baize ichain dezaquegu,
 Sartucodala baqueago Cerurá.
 Igo dedin ² lurretac
 Gambara urdín artará,
 Beti ceñean da egongo
 Jaungoicoá danecen ³ betico Erreinuán.
 Iru seme Erreguequin
 Vera Erregue birretán ⁴,
 Izentacen da onegatic
 Phelipe au bi bíder bostgarrená.

1. Ez dugu argi ikusten azentu marka.
2. Espero dena *bedi* da.
3. Ez dakigu zer den *danecen* adizki hau.
4. Erregetza utzi eta berriz hartu beharrean aurkitu zen.

Vicidedillá Fernando,
 Carlos vicidedillá:
 Vada Luis anchina ⁵ dago
 Ainguerua leguéz aingueruen arteán.

2. TESTUA

1. *Testuaren deskribapena*

Larruzko estalkiz apaindua dagoen kodize batean zenbait testu aurkitzen ditugu euskaraz, hitz neurtuz ematen direnak. Kokizeko orrialdeak hizkiz eta zenbakiz daude markaturik. Hasierakoak hizki larriz, honela: *A*, *B* etab., *P*-raino; hurrengoak, 1-305.eraingo zenbakiz horniturik orrien bi aldeetatik. Zenbait orrialde zuri daude. Bizkarrean *Graveson* irakurtzen da.

Ur markak hauek dira: 1. *BEARN*, eta 2. 1743.

2. *Edukia*

Eskuidatziaren gaia Elizaren historia laburtua da eta latinez dago. Historia hori amaitzen denean eta horren azkeneko orrialdetik aurrera bukaeraraino euskal bertsoak aurkitzen ditugu, latinezko zatiaren egileak berak idatziak. Zehatzago: A.1. orrialdetik 211.eraingo Elizaren edestia dugu, *Amat de Graveson*-ek argitaratu zuenaren laburpena ⁶, 225 (sic)-290, Testamentu Zaharreko Elizaren (sic) historia ⁷, hau ere *Graveson*-ek idatzitakoaren laburpena; 290-305, euskal bertsoak, eta gaztelaniaz eta latinez gauzatxoren bat. Aurkibidea hau litzateke:

1. Epitome Historiae Ecclesiasticae	A.1.
2. Ex Historia Ecclesiastica	225.
3. Missiora deeya	290.
4. Missioraco saetac	294.
5. Christo Crucificatuari	297.
6. Calvarioaren estacioetan	298.
7. San Josephen Gozoac	301.
8. Enigmas (erdaraz eta latinez)	302.
9. San Nicolas gloriosoari Gozoac	303.
10. Hymnus (latinez)	304.
11. El pulso (erdaraz)	305.

6. zenbakian aipatzen dugun *Calvarioaren estacioetan* ezaguna da eta azkeneko urte hauetan horren bi aldaera izan dira argitara emanak, bat *Ibero*-n

5. Bigarren bertsoan “ainchiná” idatzi du eta laugarrenean “ainchinatic”, azkeneko bertso honetan, berriz, “anchina”.

6. Honela da izenburua osorik: *Epitome Historiae Ecclesiasticae a saeculo Ecclesiae I. usque ad saeculum XVIII. ex P. Ignatio Hyancintho Amat de Graveson Parisiensi Doctore, et Colegij Casanatensis Theologo Ord[inis] Praed[icatorum] qui floruit hoc saeculo XVIII.*

7. Osorik honela: *Ex Historia Ecclesiastica veteris testamenti eiusdem P. Graveson ord[inis] Praedic[atorum].*

izan zena aurkitua eta bestea *Narbarte*-n ⁸. Hala ere ezagutzera ematen dugu hemen orain aurkitu duguna, hori egiten dugula batez ere besteak baino lehenago izan zela idatzia uste dugulako, beherago esaten dugun bezala.

3. *Nor, non eta noiz*

Ez dakigu nork eta non izan den idatzia, baina suposatzen dugu herri hartako parroikia edo basiliza famaturen bat S. Nikolasi eskainia zegoela, honen himnoa euskaraz eta latinez baitakar. Nafarroako herri hauetan ditugu S. Nikolasen parrokiak; *Arteaga*-n (*Estellerrian*), *Auritz* (*Erroibar*), *Enderritz* (*Olaibar*), *Iruñea*, eta *Larrasoñan* (*Esteribarren*). Bestalde, kodizea, daki-gunez, *Izarbeibarreko Obanos*-etik dator, eta ibar horretan S. Nikolasen bi basiliza ditugu, bat *Tirapu*-n eta bestea *Uterga*-n, bigarren hau *Olandain* herri desagertuaren parroikia eliza izan zelarik. Egia esan, gure buruan *Uterga* eta *Iruñeko* elizak ari dira lanean. *Uterga*-koa nagusituko balitz, ez ote luke izango zer ikustekorik *Obanos*-en dagoen *Arnotegi*-ko (lehen *Arnaute*) basilizaren ermitazain izan zen eta euskal bertsoak erruz tajutu zituen *Juan de Undianok* (1551/2-1633)? ⁹.

Eta noiz? Goian esan dugunez, erabili den paperaren ur markak 1743 urtea erakusten du, eta Elizaren historian ageri den azken data 1744 da —211. or.—, honen ondoren Testamentu Zaharreko Elizaren historia eta euskal orrialdeak datozela. Den-dena esku batek eta luma ta tinta berez baliaturik egina dela uste dugu, beraz c. 1744 urtearen inguruan. Baina esku horrek zer egin du, hots, lan guzia berak burutu ala beste batek egina aldatu? ¹⁰. Paragrafo honen hasieran datari buruz esan dugunera itzuliz, 1743.ean Benedikto 14.a (1740-1758) aipatzen du eta hau eransten du: *qui adhuc feliciter regnat*, esan nahi baitu *oraindik zorionez agintaritzan dirau*. Gaspar Miranda eta Argaiz, *Iruñeko gotzaia* (1743-1767), aitatzen da 1744.ean.

4. *Hizkuntzaren inguruan*

Atal honetan kontuan izan behar da testuak hitz neurtuz daudela, eta horregatik errimak eta silaba kopuruak gertakari asko sortarazten dituztela eta hizkuntzak eskaintzen dituen baliabide anitz erabiltzera bultzatzen dutela idazlea. Hori dela-eta, morfologian-*ki* eta -*kiñ* aurki ditzakegu sozietiboan, -*en* eta ez -*ean* inesiboan, sintaxian objetua eta genitiboa ikus ditzakegu, etab. Esan behar dugu ere, esan beharrik ezpadago ere, egileak euskaran zuen trebetasuna ageri dela horretan.

8. Cf. ARRAIZA FRAUCA, J., "Ibero, Vía Crucis en vascuence de comienzos del siglo XIX". *FLV*, XX, 51 (1988), 143-154; Frantzisko Ondarra. "Nafarroako Bertitzaranean aurkitutako euskal testuak". *ASJU*, XXIII-3, 1989, 701-755: ik. 731-737. or.

9. Cf. GOÑI GAZTAMBIDE, J., "La vida eremítica en el reino de Navarra". *España eremítica*. VI Semana de Estudios Monásticos (Pamplona, 1970), 327-344; B. eta M. Estornés Lasa. "Un cancionero vasco del s. XVI en Obanos". *FLV*, 5 (1970), 231-233; Antonio Unzueta Echebarría. "Nuevos datos sobre el reformador de eremitas y poeta vasco Juan de Undiano". *FLV*, 39 (1982), 329-337.

10. Ik. testu(eta)ko 25. oharra.

Grafia

Bokaletan, hitz hasieran ez da ageri *v*- kontsonantea *u*- bokalaren ordeztu, hasi latinezko testuaren 1. orrialdetik eta idazkiaren bukaerara.

Kontsonanteetan, latinezko *ch*- mantentzen da: “*Christo*” 301. or., 2. bertsioa. Bi aldiz *k* erabiltzen da: “*lukete*” ‘lukete’ 296,9 eta “*dohakabea*” 300,3. Hitz bukaeran *-ll* eta *-ñ* jartzen dira gehienetan *i* bokalaren ondoren.

Ts digrama ez du ezagutzen, horren partez *ss* eta *x* ageri direla: “*uss* eguiñ” 290,2, “*essaiari*” 297,2 eta “*exaiac*” 196,15.

Tc + *e* ipintzen du beti, eta normalki *tc* + *i*: “*eriotcea*” 291,1, “*utciric*” 290,1, baina “*etxiten*” 292,5.

Ixa adierazteko *ss* bikoitza dugu behin: “*issuria*” 294,6, beste guztietan *s* bakunaren ordeztu dagoela: “*ossoric*” 291,7; eta *x* berriz *j*-ren ordeztu: “*luxurio-soa*” 297,8, baina “*lujuriazco*” 297,9.

Bukatzeke, *c* + *e* ageri da beti, *c* + *i* normalki eta lau bat aldiz *z* + *i*: “*goiceco*” 292,5, “*gucia*” 299,1, baina “*guzia*” 299,2.

Fonetika

Bokaletan, ez dugu ikusten gertakari berezirik.

Kontsonanteetan, beti *-ll*- eta *-ñ*- erabiltzen dira *i* bokalaren ondoren: “*Pillareari*” 298,4, “*doctrinara*” 290,3, etab.

Hitz barruko *-zt*- multzoa gutxitan aldatzen da eta *-st*- bilakatzen: “*vizturic*” 301,2, “*billuztu*” 298,6, baina “*guerostic*” 298,2, “*vistu*” 303,6. Hitz bukaeran *-s* erabili ohi du, *-z* ere ez dela falta: “*oyus*” 294,3, “*berris*” 291,9, baina maizago “*berriz*” 294,2 etab.

Fonetika sintaktikoan hauek ditugu: “*expanu*” 293,3, “*extu*” 291,5, “*etzaitela*” 290,2.

Morfologia

Deklinabidean, ablatiboa bizidunetan *-ganik* da: “*ayenganic*” 304,2, eta plurala bizigabeetan *-tarik* eta *-tatic*: “*ocasioetatic*” 292,1 eta “*infernuetatic*” 290,4. Ik. esaldi hauek: “*viotza aldenic alde passa balez nerea!*” 298,5 eta “*Bearcoduzu errabiartcen egon secularean*” 296,7, formaz bizkaierako ablatibo zaharraren antzekoa.

Ergatibo plurala *-ek* da: “*Condenatuec*” 296,9. Inesiboa bi aldiz *-en* da eta ez *-ean*: “*gurutce pisu baten*” 299,3 eta “*aditcen bularren*” 293,2. Egia esan, errimak eta silaba kopuruak bultzatu dute horretara, baina bertsogileak ezagutzen zituen aldaera horiek. Instrumentala *-es* da pluralean: “*itz ocio-*

soes” 293,5. Soziatiboa *-kiñ* da, bi aldiz ezik: “itcequi” 300,5 eta “Juramentuequi” 296,13, bigarren hau errimak eskatzen duelarik ¹¹.

Erakusleak hauek ditugu: *hau, honek, hontan, hobek; gura, hura, harrek, haren, haiek*. Ik. ere *bere* eta *beren* *Hiztegian*.

Izenordain pertsonalak, hauek: *ni, nik, neuronek, nigatik, nere; gu, gurea; zu, zuk, zeurorrek, zuregatik, zugana, zure, zeure*.

Aditzean, iraganaldian bukaerako *-n* batzutan gorde eta beste batzutan galdu egiten da perpaus nagusian, bertsoak ikustekorik ez duela: “Cego bada” 299,7 eta “imiñicioten” 299,3. Geroaldia tajutzeko *-en* morfema erans-ten zaio *-n* bukaeradun partizipioari: “izanen” 293,5. Agintera eta ahalezkoan *-tu* eta *-i* morfemak galdu ohi dira, behin ezik: “prevenizaite” 295,12, “iritzarzaite” 295,11, “Desseya zaquezun” 292,8, baina “eztaiteque sufritu” 296,8. Aurkitu dugun subjuntiboko kasu bakarrean ez da galdu *-i* bukaera: “assi nadien” 298,7.

Sintaxia

Behin bakarrik aurkitu dugu genitiboa objetuaren ordeiz: “aurraren ikus-tera” 301,5. X-rekin Y ere behin ikusi dugu: “Lurrarequiñ cerua bere contra tu exaiac” 296,15.

Hiztegia eta adizkitegia

Aipa ditzagun bereiz hitzok: *agartu* ‘agertu’, *arrallatu* (*arrailatu*), *biderante* ‘ibilkari’, *bozkarande* ‘bozkario, poz’, *erren* ‘arantza’, *eskaia* ‘mugon, eskaida’. Larramendik dakar *arrallatu* aldaera, eta *bozkarande* ta *eskaia* berbek ere autore bera dakarkigute burura. Ez dugu ahaztu nahi *jaite* hitza, *jaiki* espero delarik.

Adizkiok aipatzen ditugu: *dit* *-didan*- ‘ematen dit’, *gauzkizu* ‘euzkazu’, *lukete* (sic *-k-*) ‘lukete’, *zindue(n)* ‘zenuen’, *ziñuzan* ‘zintuen’, *ziñuzten* ‘zintuzten’.

5. Gure lana

Hitz hasieran izan dugu dudarik hizki larri ala xehearen aurrean geunden, batez ere *j-* eta *c-* aurkitzen genituenean. Beti “ceru” ipini dugu eta beti “Juez” eta “Justo”, baina “juicio” etab. Hitzak bildurik ala banaturik zeuden erabakitzea ez zaigu erraza izan.

Hiztegia atalean ez ditugu hitz guztiak sartzen, baina *Adizkitegia* atalean bai. Izan dugu zalantzarik iraganaldiko sarrerak nola idatzi behar genituen, *-n* bukaerarekin ala hori gabe. Azkenean, honela egin dugu: 1. adizkia *-n*-ekin jartzea, hola bakarrik badago perpaus nagusian; 2. adizkia *-n* gabe + *barra(/)* + *n* jartzea, bi eratara badago perpaus nagusian; 3. beste aldi guzitetan (*n*) parentesi barruan ipintzea.

Laburdurak: a. aditza, ad. adberbioa, adj. adjetiboa, au. aurrizkia, d. determinatzailea, i. izena, ik. ikus, io. izenordaina, j. juntagailua, p. posposizioa.

2. TESTUKO BERTSOAK

[290] *Missiora Deeya*

Missionera zato,
guciac utciric,
etzaitela gueldi
Ahi! burlaturic.

Fite fite zato
missioa adizazu,
eta len baño len
ocasioa utzazu:
Lanceau ez galdu,
orra avisaturic:
etzaitela gueldi
Ahi! burlaturic.

Ceruco zarade
biderantea,
uss eguiñ etzazun
ango bidea:
zato doctriñara
humillaturic.: etzaitela &.

Ceruco ondasunac
naituzu erdechi?
infernuetatic
eguiñ igasi?
vicioac uzquizu
urriquituric.: etzaitela &.

Nola den vicia
arla da ilcea,
[291] vici onac ona du
eriotcea:
au nola icenenden
atra emendic.: etzaitela &.

Naiduzu gozatu
Mariarequiñ?
etzaitela josta
munduarequiñ
utcico zaitu onec
engañaturic. &.

Culpac erituric
barimazauzqui,
Confessoreagana
lasterca zoaci:
utcico zaitu arrec
zu sendaturic. &.

Examiñazazu
conciencia ongui,
beira ceure falta
ez batre utci:
espacio arzazu
retiraturic. &.

Zuc daquizu bada
contuac atratcen,
onec gutiago
eztu importatcen:
ongui seculaco,
edo galduric. &.

Precisso beardena
urriquimentua,
au ezparimada
gucia galdua:
zato siñes otoy
damu arturic. &.

Jesus Gurutcean
dago nigatic:
nola viotz nerea
zaude ossoric?
etzara guelditcen
bi zati eguiñic? &.

Ez utci errateco
batre mortalic,
asqui da herida bat
uzteco illic:
erranzquizu claro
explicaturic. &.

Bearduzu ere izan
propositua,
berris ez erorceco
siñes artua:
[292] igas eguiteco
ocasioetaric. &.

Erioa dator
uste eztenean,
ladrona bezala
goarcabean:
etzaudela bada
descuidaturic. &.

Ellegatuco da
eztaquizu noiz,
egun ala biar,
berant ala goiz:
edo zartu gave,
edo zarturic. &.

Ezta cer fiatu
adiñ onean,
badoazi gazteac
zarren aurrean:
argatic dago aniz
condenaturic. &.

Arrassean aniz
ongui etziten,
goiceco difunto
banago icusten:
gaztea baduzu
asqui avisoric. &.

Jesus errangabe
aniz bezala
zuere illzaitezque
nornai zarela:
etzuzu gueyago
privilegioric. &.

Pensatu bearduzu
arrassaldean
vicico etzarela
biar goicean:
jaite ¹² zaite alaber
arrepentituric. &.

Desseya zaquezun
lance obrenean
erorico zara
noizpat goatcean:
indarrica gabe
consumituric. &.

Leneco dembora
Ahi! cer eguinda?
nola urbillcenden
azquen despeida!
suspiros, dolores,
ayes beteric. &.

[293] Daude turbaturic
vorz sentidoac,
o cer eguinciren
nere gustoac!
daude ya guciac
acabaturic. &.

Elduda ya guero
oliadura,
aditcen bularren
zurruga gura:
echeco guztia
choill doluturic. &.

Emanen dizute
Santo Christoa,
baitare candela
bedeicatua:
Ahi! eguiñ ezpanu
nic becaturic. &.

III eta bereala
juicioa,
trance terriblea
espantoso:
pensatceac berac
nauca arrituric. &.

Contu escatuco da
itz ociosoes,
Ahi! cer izanenda
berce anitz itces:
chanzac deicentuzu
gaizqui deituric. &.

Naiduenac orduan
ongui libratu,
dembora denean
ez descuidatu:
zaude, otoy, zaude
prevenituric. &.

Jangoicoa dela
piadosoa
egui da; baña
ain da Justoa
ez egon vanoquiñ ¹³
confiaturic. &.

12. Espero dena "jaiqui" da.

13. Espero dena "vanoqui" da.

Ezta orai ordua
regalatceco
ezta orai dembora
placer arceco:
naiduenac naiduena
erranagatic. &.

Vicia da labur
[294] segur ilcea
gustoa da guti,
pena lutcea:
noiz artraño bada
zaude issuturic. &.

Nor obec aituric
ezta emmendatcen,
juicio duela
eztut pensatcen:
diot berriz ere
eztu juicioric:
etzaitela gueldi
Ahi! burlaturic.

[294] *Missioraco saetac*

Oyus dago Jaincoa,
eztuzu nai aditu?
guero adituco etzaitu.

Orai deitcen zaituena
zure aita bera da,
guero juez izanenda.

Jaincoagana itzuli
ezpaduzu nai orai,
zuc naiduzunean, Ahi!

Izanenda Jesusen
odol sandu issuria,
ahi! zure galgarria.

Emmendatu bearbauzu
Becatorea noizpai,
cerengatic ez orai?

Dembora emen galdua
guero zure damua.

Jaincoaren partes diot,
bearduzu confessatu,
bercela condenatu.

Otoi confessazaita,
illzaitezque ez ustean,
becatu mortalean.

Aniz, confessatcea
biarco utciagatic,
daude condenaturic.

Confessioan mortalbat
alques utci baduzu,
batre barcatu etzaizu.

Alque zaite eguiteco,
[295] baña ez confessatceo.

Confessatu denari
urriquimentu gave
barcatu etzayo batre.

Orai bearda dolua,
guerocoa da galdua.

Confessioan ezpada
ocasioa despeitu
deusere balio eztu.

Jaincoa zuregatic
ainberce padecitcen,
eta zu ofenditcen?

Jesus dago zugatic
gurutcean itzaturic.

Berriz ofenditcea
da berriz itzatcea.

Nola atrevitcenzara
becatuan locarcera?

Bada aniz infernuan
becatu soill batequiñ:
nola zaude ainbercequiñ?

Zuc baño gutiagoequiñ
dago aniz demoniequiñ.

Otoy iritzarzaite
fite becatorea,
urbill da eriotcea.

Orai prevenizaite,
orduco utcigave.

Anitz banago icusten
goicean ongui jaiquiric,
arrassaldeco illic.

(vel sic)

Franco banago aditcen
arrassean ongui etziñic,
biramon goiceco illic.

Zaude prevenituric
ezta ordu seguroric.

Ongui orai bazaudere
derrepente illzaitezque.

Ilbearduzu bein sollic,
eta uss orducoa
da uss seculacoa.

[296] Juicioaren uste zara,
eta etzara emmendatcen?
cer oteuzu pensatcen?

Orai da Jangoicoa
choill urricariosa,
baña an rigurosa.

O cein gauza bortitza
Juez Jaunaren vista!

Plazara atracodire
orduan ugariac
zure culpa gutziac.

Orduco sentenciatic
batre ezta apelacioric.

Orduan egotea
zure contra Maria
gauza icargarria!

Infernuan cer oteda?
tormentu beticoa,
pena seculacoa.

Gaubatez eztaiteque
sufritu dolorea,
nola fiñic gavea?

Condenatuec orai
cer emanen lukte ¹⁴
zure escaya balute?

O nola salvatcea
egoncen nere escuan!
erranenduzu orduan.

Bearcoduzu errabiatcen
egon secularean ¹⁵
Demonioen ertean.

Pena bete betean,
beti beti irautea,
zoriaren tristeia!

Juramentuarequi
desgracia dabil beti.

Gauza chiquian badare,
guezurrarequiñ bada,
becatu mortalea da.

Lurrarequiñ cerua
bere contra ¹⁶ tu exaiac
juramentu eguilleac.

Guertatuco zaizuna
maldicio eguillea
[297] eriotce repentea.

Jaincoac barcatuco
eztio, essaiairi
barcatcen eztionari.

Nola naidu salvatu
nai eztuenac barcatu?

Adaisquide eguinda
Jangoico berarequiñ,
bere exayarequiñ
baqueac eguintuena.

Etorrico da fite
zugana castigoa
guizon deshonestoa.

Araguiaren gustotic
infernucio penara
pausua choill prompto da.

Noiz gusto liquixaren
obrenean daudelatic
guelditu da anitz illic.

Urbildus doaquizu bai
ola luxuriosoa
ceure azquen plazoa.

14. Horrela: "lukte" 'lukete'. Silaba bat falta da lerroan, beraz *lukete* izan behar luke.

15. Espero dena "seculaco" da.

16. Eskuidatzian (E) "conta".

Naibaduzu ez eguiñ
lujuriazco culparic,
apart ocasioetaric.

Ill artraño ez echiden
restitui len baño len.

Jabeari berea
bearco diozu itzuli,
confessatcecotz ongui.

Murmurazalearen
izanenda pagua
beti betico sua.

Ceure faltac icusi,
eta bercenac utci.

Naituenac seculaco
gozatu contentuac
guarda mandamentuac.

[297] *Christo Crucificatuari*

Bada izanda nigatic
zure eriotcea
Dela possible, Jesus,
[298] berriz zu ofenditcea?

Bein saldu Judas batec
bazaitu neregatic,
anitz aldiz guerostic
saldu zaitut neuronec:
cer pena didan onec,
Ahi Jesus choill dulcea!
Dela possible, Jesus,
berriz zu ofenditcea!

Zure aurtegui sandua
dago listus beteric,
orduan arrituric
nola cegon cerua!
cer aizara mundua?
noizco da humillatcea?
Dela possible &.

Pillareari loturic
zarade azotatua,
gucia zauritua,
ezurrac agarturic:
vorz aldiz passaturic
milletan azotea: &.

Coroaturic zaude,
baña nola? Errenes:
ni neure becatues
nago penaric gabe?
viotza aldenic alde
passa balez nerea! &.

Nola tresnac baiceuden
larruari ichiquiric,
bazaude larruturic,
assi orduco billuzten:
eta etzara erdiratcen
emen, Becatorea? &.

Egarriac zu ceunden
emandizute ozpiña:
eta nere aleguiña
nondic gusto izanen?
ya bada assi nadien
progatcen gurutcea. &.

Guelditu eztire erchiric
Jesus zure zauriac,
ceruco atariac,
aurquitceco idiquiric:
arzadan oray danic
araraco videa.
Dela possible, Jesus, &.

Calvarioaren estacioetan

[299] Bada izanda nigatic
zure eriotcea:
Dela possible, Jesus,
berriz zu ofenditcea!

1

Jesu Christo loturic
dago emen billucia,
galduric iduria,
guzia zaurituric:
vorz aldiz passaturic
milletan azotea.
Dela possible, Jesus,
berriz zu ofenditcea!

2

Gurutce pisu baten
carga soñ flacoetan
illceco bere artan
imiñicioten emen:
pensa, zu cembat zauden
Jaincoari costea. &.

3

Cargac icaraturic
gucia dezaquena
ceruac eguintuena
lurrean eroriric:
chutitceco lagunic
eztuzu Jaun ¹⁷ nerea. &.

4

Ona non topatucen
ama sanduarequiñ,
nolaco penarequiñ
Maria guelditucen!
aren atcean joan cen ¹⁸.
o cein gucis tristea! &.

5

Gueyago pena gatic
emanciotc lagunbat,
viciric Calvariorat
ellegatceagatic:
merchede eguiteagatic
etce izan merchedea.

6

Cego bada ¹⁹ beteric
odolez aurteguia,
gueldituda gucia
misean marcaturic:
bere pagua arturic
doaye content andrea.

7

[300] Erorcenda lurrera
berriz Jainco gurea,
nola, becatorea,
emmendatcen etzara?
zuc eguinduzu bada
ain pisu gurutcea. &.

8

Bada eracusten zaizu
emen negar eguiten,
ezpaduzu icasten,
zuc viotcic eztuzu:
edo aín gogor daucazu
nola dagon broncea. &.

9

Irur aldiz erori eta
escu ematen eztiozu?
cein cruela Jesusequiñ,
cein cruela zaraden zu!
becatuan egon nauzu?
o zure dohakabea! &.

10

Zauriac billuztean
Jesuseri berritcen,
eta etzaizu erdiratcen
viotza au pensatcean?
ambat gendeen aurrean
o Jesusen alquea! &.

11

Bi ladronen ertean
Jesus imincendute,
zaticatcen ereute
itcequi jossitcean:
zuc culpa berritcean,
berritcen da colpea. &.

17. E "gaun".

18. *Narbarte/Oieregiko* testuan -ik. ASJU, XXIII-3, 1989, 733. or.- "Aren atzian *guacen*".
Oraingo testuko lerroa, ezpairik gabe, hobeto uztartzen da bertsoke beste lerroekin.

19. E "bata".

12

Lurra da icaratcen
ilcean Jaun andia,
illuncen iguzquia,
arriac arrallatcen:
eta alare berazten
ezta viotz zurea? &.

13

Josephc erauxiric
bere amac arcendu
gorputza, eta icustendu
(declaratceco ezta itcic)
bere besoetan illic
bere seme maitea! &.

14

[301] Gorputza Jaunarena
dago emen orciric;
Passioas oroituric
bego ongui ill naiduena:
devocioric obrena
maiz ontan pensatcea. &.

15

Penetan lagun denac
glorian ere beardu,
Christo emen icusidu
vitzuric Magdalenac:
guero gozo naiduenac
auta orai penatcea. &.

S. Josephen Gozoac

Dut, Joseph, placer andia
zure gozoengatic:
laudatcen dut argatic
Jaincoa, eta Maria.

1

Nola ceunden aleguere ²⁰
izanic avisua,
zure esposac fruitua

lorea galdu gabe
cecarrela, o nolare
gozoaren ezta!
Laudatcendut argatic
Jaincoa eta Maria.

2

Fite doaci contentic
arzayac portalera,
aurraren icustera
cerutica deituric:
utcizute vozturic
zure viotz gucia. &.

3

Aurrari imiñidiozu
Jesus, icen dulcea,
gure Salvazalea
ontan erran naiduzu:
bozcarioa artu duzu
orduan ez chipia. &.

4

O nola voztuciñan,
cela Redentorea,
celare señailea
Simeon aditcean:
oni ere ematean
Jesus aurrac vicia. &.

[302] 5

Segur content ziñela
ceurorrec icustean
eroriric lurrean
idolac baceudela:
eta garaitcen zuela
aurrac idolatria. &.

6

Atratceco Egiptotic
zarade avisatua,
nolaco contentua
orduan zaude arturic!
dagola Herodes illic
etorrida berria. &.

20. Lerroak 8 silaba ditu, 7 izan beharrean.

7

O cer bozcarandea
aurquitu cinduenean
zuc Doctoren ertean
ceure Jesus maitea!
cer gozoa zurea!
mututcenda emen mia.
Laudatcendut argatic
Jaincoa, eta Maria.

[302] *Enigmas*

Agua bebo
por no tener agua;
si agua tuviera,
vino bebiera.

Cual es aquel que se muere,
sin ser nada su herida,
y su contrario, si quiere,
conlas armas, que le hiere
le puede bolver la vida?

Una madre concibio
un hijuelo sin pecado,
y antes que fuera formado,
agenos padres le dio,
delos quales fue criado,
desde el punto que nacio.

Estudiante que estudias
en libros de Philosophia,
qual es el ave que vuela,
que tiene tetas, y cria?

Bis tria sunt septem, septem sunt
sex, et si bene numeres, omnia sunt
quinque.

Deficiente pecu deficit ²¹ omne nia.

[303] *San Nicolas gloriosoari
Gozoac*

Anitz dezaquezuna
zara bada Ceruan
adizazu, Nicolas,
dagona trabajuan.

Jaten baño barutcen
zaude len icasiric,
zu bi aldiz astean
titian ceundelatic:
aditu ezta orlacoric
len ta guero munduan.
adizazu Nicolas &.

Daquizu erremediatcen
laceriaric andienac
ezconceco doncella
dote faltas ceudenac
eta aurquitcen cirenac ²²
ya galceco puntuan.

Issasoa badago
aguitz assarraturic ²³
deitu ez guerostic zu
ya dago mansaturic:
bada asseguraturic
gaude zure amparuan.

Erremediatcen tuzu
maingu eta baldatuac
zuc uzten badaquizu
vistarequiñ issuac:
libre ere cautivuac
beren naitu lecuac. &.

Estudiante nobleac
ostatariac iltu.
gatz ²⁴ arturic ceudenac
zuc tuzu guero vistu:
ziñuzten bada deitu
ilbear zuten orduan ²⁵.

21. Horrela ikusten dugu: "deficit".

22. E "cirenac".

23. E "assaraturic".

24. Espero dena "gatz" da.

25. Lerro honen ondoan *choill siñesco moduan* ezabatu du eta beherago ipini, hots, *Sacerdote bat zuten* lerroak hasten duen bertsoan. Kopiatzen ari dela esan nahi ote du honek? Baina, bestek egindakoa kopiatzen ala berak moldatua aldatzen?

Garcelean badago
obenic gabe dena
badago afligituric
umeric ²⁶ eztuena
aurquitcen naiduena
du zure socorruan:
adi zazu Nicolas &.

[304] Beñ bacego butzuan
guizon bat eroriric.
nor oraiño galduda
zuri gomendaturic?
atrada andic viciric
egun biden ondoan.

Sacerdote bat zuten
mairuec arrapatu
baña zuc ayenganic
duzu ere libratu
zu ciñuzan otoiztu
choill siñesco moduan.

Segur sendatcen ²⁷ ditu
eritasun guciac
zure obian dagon
oliozco iturriac:
gure affectu chiquiac
zuc arzuquizu carguan.

Eztaiztequela conta
zuc eguiñ milagruac
segurqui erraten digu
eliza ama sanduac:
gauzquizu, otoy, artuac

gu zure gomenduan.
adi zazu Nicolas
dagona trabajuan.

Hymnus

Vt piaē laudes resonent per orbem
Te Nicolaum celebrentque ²⁸ mag-
num
O sacerdotum, precibus faveto,
Gloria nobis.

Cui bis in septem spatio dierum
Abstines victu teneris sub annis
Cum semel tantum solitus fuisses
Sugere mammas.

Dextera cuius viduae levantur,
Nubiles iungunt thalamosque laetae,
Pauperes large satiantur, atque
Convalet aeger.

[305] Adiuvēs sanctus, faveasque
Pastor
Cui tuos laeti canimus triumphos,
Et pijs nobis precibus benignus
Quaesumus adsis.

Sint Patri laudes, Genitaeque Proli,
Flamini dentur pariterque Sancto,
Te, Deus, laudent, triplici, fideles,
Nomine simplex.

Amen.

El pulso ²⁹ en un sano (segun observaciones hechas) dara 4. mil pulsacio-
nes: en un calenturiento cerca de 20. mil, en una hora. Pinamonti ³⁰.

26. *Nafarroako* testuetan hasieran *h*- duela idatzi ohi da "hume".

27. Lehenbizi *curatcen* idatzi du.

28. E bi hitzetan partiturik: *celebrent* + *que*, hola egiten duelarik beti.

29. Erdal hitz hauekin bukatzen du.

30. Agian *Gian Pietro Pinamonti* (1632-1703) da, italiar misiolari jesuita, erlijio gaiez asko idatzi zuena italieraz eta latinez.

HIZTEGIA

A

- ADIÑ (i.) 'edade'. *adiñ* onean 292, 4.
 ADAISKIDE (i.) 'adiskide'. *Adaisquide* 297, 4.
 AGARTU (a.) 'agertu'. *ezurac agarturic* 298, 4.
 AGITZ (ad.) 'guztiz, oso'. *aguitz* assarraturic 303, 4.
 ALA (j.) 'edo'. egun *ala* biar, berant *ala* goiz 292, 3.
 ALDE (i.) 'albo'. viotza *aldenic alde* passa balez nerea! 298, 5.
 ALEGERE (adj.) 'alai, kontent'. *aleguere* 301, 4.
 ANITZ (d.) 'asko'. *anitz* 293, 5, *aniz* 292, 5.
 ARRALLATU (a.) 'arraildu, printzatu'. arriac *arrallatcen* 300, 6.
 ARZAI (i.) 'artzain'. *arzac* 301, 5.
 ATARI (i.) 'ate'. ceruco *atariac*, aurquitceco idiquiric 298, 8.
 ATRA (a.) 'atera'. *atra* 291, 1.
 ATZE (i.) 'gibel'. aren *atcean* joan cen 299, 5.
 AURKITU (a.) 'kausitu'. *aurkitu* cinduenean 302, 3.
 AURTEGI (i.) 'aurpegi'. *aurtegui* 298, 3.
 AUTATU (a.) 'hautatu'. *auta* orai penatcea 301, 2.
 AZKEN (d.) 'hondar'. *azquen* despeida 292, 9.

B

- BARIMA- (ad. + au.) 'baldin ba.'. *barimazauzqui* 291, 3, *ezparimada* 291, 6.
 BARUTU (a.) 'barau egin'. *barutcen* 303, 2.
 BEDEIKATU (adj.) 'bedinkatu'. candela *bedeicatua* 293, 3.
 BEKATORE (i.) 'bekatari'. *becatorea* 300, 1.
 BERANT (ad.) 'berandu'. *berant* ala goiz 292, 3.
 BERAZTU (a.) 'bigundu'. *berazten* ezta viotz zurea! 300, 6.
 BERE/BEREN (io.) 'haren; haien'. *bere* seme maitea 300, 7, libre cautivoac *beren* naitu lecuac 303, 5.
 BEREALA (ad.) 'berehala'. Ill eta *bereala* 293, 4.
 BIDA (d.) 'bi'. egun *biden* ondoan 304, 1.
 BIDERANTE (i.) 'ibilkaria'. Ceruco zarade *biderantea* 290, 3.
 BILLUZI (adj.) 'biluzi'. dago emen *billucia* 299, 1.
 BILLUZTU (a.) 'biluztu'. *billuztean* 300, 4, *billuzten* 298, 6.
 BIRAMON (ad.) 'biharamun'. *biramon* goiceco illic 295, 14.
 BORTITZ (adj.) 'gogor'. *bortitza* Juez Jaunaren vista 296, 3.
 BORZ (d.) 'bost'. *vorz* 293, 1.
 BOZKARANDE (i.) 'poz, bozkario'. O cer *bozcarandea*...! 302, 3.
 BOZKARIO (i.) 'poz, pozkari'. *bozcarioa* 301, 6.
 BUTZU (i.) 'putzu'. *butzuan* 304, 1.

D

- DEITU (a.) 'hots egin'. *deitu*... zu 303, 4, Orai *deitcen* zaituena 294, 4.
 DOHAKABE (adj.) 'zorigaiztoko'. o zure *dohakabea*! (sic -k-) 300, 3.

E

- EGARRIAK EGON (a.) 'egarri izan'. *Egarriac* zu *ceunden* 298, 7.
 ELIZA AMA SANDUA (i.). *eliza ama sandua* 304, 4.

ERAUTSI (a.) 'eraitsi, beheratu'. Josephec (gurutzetik) *erauxiric* 300, 7.
 ERDETXI (a.) 'lortu'. *erdechi* 290, 4.
 ERDIRATU (a.) 'zirraratu'. etzara *erdiratcen* emen, Becatorea? 298, 6.
 ERREN (i.) 'arantza'. *Errenes* (koroaturik) 298, 5.
 ERTEAN (p.) 'artean'. Doctoren *ertean* 302, 3.
 ERTXI (a.) 'hertsi, itxi'. *erchiric* Jesus zure zauriac 298, 8.
 ESKAIA (i.) 'eskaida, mugon'. zure *escaya* balute 296, 9.
 ETXIDEN (a.) 'itxaro'. ill artraño ez *echiden* 297, 10.
 ETZIÑ (a.) 'oheratu'. arrassen ongui etziñic 295, 14.
 EZ USTEAN (ad.) 'ustekabean'. illzaitezque ez *ustean* 294, 10.

F

FITE (ad.) 'laster'. *fite* zato 290, 2.
 FRUITU (i.) 'emaitza'. *fruitua* 301, 4.

G

GABE (p.) 'bage'. obenic *gabe* 303, 7, zartu *gave* 292, 3, fiñic *gavea* 296, 8.
 GATZ ARTU (adj.) 'gaixo, eri'. *gatz arturic* ceudenac 303, 6. Ik. 24. oharra.
 GAZTE (i.) 'mutil edo neska'. badoazi *gazteac* zarren aurrean 292, 4.
 GEIAGO (ad.) 'gehiago'. *gueyago* 292, 6.
 GEROSTIK (p.) 'gero, geroz'. deitu ez *guerostic* zu 303, 4; anitz aldiz *guerostic* 298, 2.
 GOARKABE (adj.) 'ohargabe'. Erioa dator... *goarcabean* 292, 2.
 GOATZE (i.) 'ohe, ohatze'. erorico zara... *goatcean* 292, 8.
 GOMENDU (i.) 'gomendio'. gauzquizu, otoy, arturic gu zure *gomenduan* 304, 4.
 GUTI (d.) 'urri, eskas'. gustoa da *guti* 294, 1.
 GUTZI/GUZTI/GUZI (d.) 'guzti'. *gutziac* (sic -tz-) 296, 4, *guztiac* 293, 2, *guciac* 290, 1.
 Maizenik azkenekoa.

I

IDIKI (a.) 'ireki, zabaldu'. atariac... *idiquiric* 298, 8.
 IDOL (i.) 'sasijainko'. *idolac* baceudela 302, 1.
 IGASI EGIN (a.) 'igesi egin'. *eguiñ igasi* 290, 4, *igas eguiteco* 291, 9.
 IMIÑI (a.) 'paratu, ezarri'. *imiñicioten* (karga) 299, 3, Aurrari *imiñidiozu* Jesus 301, 6.
 IRITZARRI (a.) 'iratzarri'. Otoy *iritzarzaite* 295, 11.
 IRUR (d.) 'hiru'. *Irur* aldiz 300, 3.
 ITXIKI (a.) 'atxeki, itsatsi'. tresnac... larruari *ichiquiric* 298, 6.
 ITZATU (a.) 'iltzatu'. gurutcean *itzaturic* 295, 6.

J

JAIKI (a.) 'ohetik jaiki'. goicean ongui *jaiquiric* 295, 13.
 JAINKO/JANGOIKO (i.) 'Jaungoiko'. *Jaincoagana* itzuli 294, 5, *Jangoicoa* 296, 2. Behin
 bakarrik *Jangoikoa* gure fitxetan.

JAITE (a.) 'jaiki'. *jaite* zaite alaber arrepentituric 292, 7. Ik. 12. oharra.
JOSTATU (a.) 'olgatu'. etzaitela *josta* munduarequiñ 291, 2.

K

KONTENT (adj.) 'pozik'. doaye *content* 299, 7, doaci *contentic* 301, 5.
KOROATU (a.) 'koroa buruan ipini'. *coroaturic* zaude... (errenes) 298, 5.
KOSTEA EGON (a.) 'balio izan'. cembat *zauden* Jaincoari *costea* 299, 3.

L

LARRUTU (a.) 'larrantzi'. *larruturic* 298, 6.
LAUDATU (a.) 'goretsi'. *laudatcen* dut 301, 3.
LAZERIA (i.) 'gabezia'. *lacieriaric* andienac 303, 3.
LEN BANO LEN (ad.) 'hainbat lasterren'. *len baño len* 290, 1.
LISTU (i.) 'txistu'. *listus* beteric 298, 3.
LOKARTU (a.) 'loak hartu'. becatuan *locaturic* 295, 8.

M

MAINGU (i.) 'herren'. maingu eta baldatuac 303, 5.
MAIRU (i.) 'maurus'. Sacerdote bat zuten *mairuec* arrapatu 304, 2.
MERTXEDE (i.) 'fabore'. *merchede* 299, 6.
MI (i.) 'mihi'. mututcenda emen *mia* 302, 3.
MISE (i.) 'mihise, oihal'. *misean* marcaturic 299, 7.

N

NAITU (a.) 'nahi izan'. beren *naitu* lecuan 303, 5.
NEGAR EGIN (a.) 'ploro'. *negar eguiten* 300, 2.
NERE (io.) 'nire, ene'. viotz *nerea* (bokat.) 291, 7.

O

OBEN (i.) 'erru'. Garcelean badago *obenic* gabe dena 303, 7.
OBI (i.) 'hilobi'. zure *obian* 304, 3.
OBREN (adj.) 'hoberen'. lance *obrenean* 292, 8.
OLIADURA (i.) 'extrema unctio'. *oliadura* 293, 2.
ORAI (ad.) 'orain'. *orai* 294, 5, *oray danic* 298, 8, *oraiño* 304, 1.
ORZI (a.) 'ehortzi'. Gorputza... *orciric* 301, 1.
OSTATARI (i.) 'ostalari'. *ostatariac* 303, 6.
OTOI (ad.) 'arren'. zato siñes *otoi* 291, 6, *otoy* 304, 4.

S

SANDU (adj.) 'santu, saindu'. odol *sandu* 294, 6.
SEKULA (ad.) 'beti'. errabiatcen egon *secularean* 296, 11. Agian *sekulare* ote, *betiere* bezala? Baina, egia esan, *sekula* aurkitu dugu beti: 'pena *seculacoa*' 296, 7 eta '*seculaco* gozatu contentuac' 'sekulako kontentuek gozatu' 297, 14.

SOILL (d.) 'bakar'. *becatu soill* batequiñ 295, 9.
 SOLLIK (ad.) 'bakarrik'. *bein sollic* 295, 17.

T

TTTI (i.) 'bular'. *titian* ceundelatic 303, 2.
 TRESNA (i.) 'jantzi'. *tresnac...* laruari ichiquiric 298, 6.
 TXIKI (adj.) 'txiker'. *gauza chiquian* 296, 14, affectu *chiquiac* 304, 3.
 TXIPI (adj.) 'txiki'. *chipia* 301, 6.
 TXOILL (ad.) 'guztiz'. *choill* doluturic 293, 2, *choill* urricariosoa 296, 2.
 TXUTITU (a.) 'zutitu, jaiki'. *chutitceco* 299, 4.

U

UME (i.) 'seme edo alaba'. *umeric* eztuena 303, 7.
 URRIKIMENTU (i.) 'damu'. *urriquimentu* gave 295, 2.

Z

ZAURI (i.) 'saki'. *erchiric...* *auriac* 298, 8.
 ZAURITU (adj.) 'sakitu'. *guzia zaurituric* 299, 2.
 ZERENGATIK (ad.) 'zergatik'. *cerengatic* ez orai? 294, 7.
 ZORI (i.) 'zorte'. *zoriaren* tristea 296, 12.
 ZURRUKA (i.) 'zurrunga'. *aditcean bularren zurruca* gura 293, 2.

ADIZKITEGIA

B

BALEZ 'baleði' (?). *viotza...* *passa balez* nerea! 298, 5.
 BALUTE 'balute'. *Condenatuec orai cer emanen lukte (sic) zure escaia balute?* 296, 9.
 BANU 'banu'. *Ahi! eguiñ ezpanu* 293, 3.

D

DA 'da'. *da* 290, 5, *den* 290, 5, *Ezta* 292, 4.
 DAITEKE 'daiteke'. *eztaiteque* sufritu 296, 8.
 DAITEZKE 'daitezke'. *eztaitezquela* costa 304, 4.
 DEZAKE 'dezake'. *gucia dezaquena* 299, 4.
 DEZAKEZU 'dezakezu'. *Anitz dezaquezuna* 303, 1.
 DIGU 'digu'. *digu* 304, 4.
 DIO 'dio'. *eztio* 297, 2.
 DIOZU 'diozu'. *bearco diozu* itzuli 297, 11.
 DIRE 'dira'. *dire* 296, 4.
 DITU 'ditu'. *ditu* 304, 3.
 DIZUTE 'dizute'. *dizute* 293, 3.
 DU 'du'. *du* 291, 1, *eztuena* 303, 7.

DUT 'dut'. *dut* 301, 3.
 DUTE 'dute'. *dute* 300, 5, *zaticatcen ereute* (sic) 300, 5.
 DUZU 'duzu'. *Naiduzu* 291, 2, *bauzu* 294, 7, *nauzu* 300, 3, *oteuzu* 296, 1.

L

LUKTE 'lukete'. Ik. BALUTE.

N

NADIEN 'nadin'. *assi nadien* 298, 7.

T

TU 'ditu'. *tu* 296, 15, *tuena* 297, 4.
 TUZU 'dituzu'. *naituzu* 290, 4.

Z

ZADAN 'dezadan'. *arzadan* 298, 8.
 ZAIIO 'zaio'. *etzayo* 295, 2.
 ZAIITE 'zaitez'. *confessazaitte* 294, 10, *iritzarzaitte* 295, 11, *etzaitela gueldi* 290, 1, *etzaitela josta* 291, 2.
 ZAIITEZKE 'zaitezke'. *illzaitezque* 292, 6.
 ZAITU 'zaitu'. *zaitu* 291, 2, *zaituena* 294, 4.
 ZAITUT 'zaitut'. *saldu zaitut* 298, 2.
 ZAIZU 'zaizu'. *zaizu* 300, 2.
 ZAKEZU 'dezakezu'. *Desseya zaquezun lance obreanean* 292, 8.
 ZARA 'zara'. *aizara* 298, 3, *etzarela* 292, 7.
 ZARADE 'zara'. *zarade* 290, 3.
 ZAZU 'ezazu'. *adizazu* 290, 2, *arzazu* 291, 4.
 ZAZUN 'dezazun'. *uss eguiñ etzazun* 290, 3.
 ZE/N 'zen'. *etce izan* 299, 6, *aren atcean joan cen* 299, 5. Errimak eskatzen du *zen*.
 ZINDUE(N) 'zenuen'. *cinduenean* (zuk) 302, 3.
 ZIÑA(N) 'zinen'. O nola *voztuciñan* (!) 301, 7, *ziñela* 302, 1.
 ZIÑUZAN 'zintuen'. zu *ciñuzan* otoiztu (hark) 304, 2.
 ZIÑUZTEN 'zintuzten'. (haiek) *ziñuzten* bada deitu 'quia' 303, 6.
 ZIOTE/N 'zioten'. *emanciote* 299, 6, *imiñicioten* 299, 3.
 ZIRE(N) 'ziren'. o cer *eguinciren...*! 293, 1.
 'ZKIZU 'itzazu'. *erranzquizu* 291, 8, *arquizu* 304, 3.
 ZUE(N) 'zuen'. *zuela* 302, 1.
 ZUTE/N 'zuten'. *utczute* 301, 5, Sacerdote bat *zuten...* arrapatu 304, 2.

ADIZKI TRINKOAK

B

BEGO 'bego', *bego* 301, 1.

D

DABIL 'dabil'. *dabil* 296, 13.
 DAGO 'dago'. *dago* 291, 7, *tagon* 300, 2.
 DAKIZU 'dakizu'. *badaquizu* 303, 5.
 DATOR 'dator'. *dator* 292, 2.
 DAUDE 'daude'. *daude* 294, 11.
 DAUKAZU 'daukazu'. *daucazu* 300, 2.
 DIOT 'esaten dut'. *diot* 294, 2.
 DIT 'ematen dit'. cer pena *didan* onec...! 298, 2.
 DOAIE 'doa'. *doaye* content andrea 299, 7.
 DOAKIZU 'doakizu'. Urbildus *doaquizu* 297, 8.
 DOAZI 'doaz'. *doaci* 301, 5.

G

GAUDE 'gaude'. *gaude* 303, 4.
 GAUZKIZU 'izan gaitzazu'. *gauzquizu*, otoy, artuac 304, 4.

N

NAGO 'nago'. *banago* 292, 5.
 NAUKA 'nauka'. *nauca* 293, 4.

U

UTZAZU 'utz ezazu'. *utzazu* 290, 2.
 UZKIZU 'utz itzazu'. *uzquizu* 290, 4.

Z

ZATO 'zatoz'. *zato* 290, 1.
 1 ZAUDE 'zaude'. *zaude* (orain) 291, 7.
 2 ZAUDE 'zaude'. *zaude*, otoy, *zaude* 293, 6.
 ZAUZKI 'zauzka'. *barimazauzqui* 291, 3.
 ZEKARRE(N) 'zekarren'. *cecarrela* 301, 4.
 ZEGO 'zegoen'. *Cego* bada 299, 7.
 ZEUNDE(N) 'zeuden'. Nola tresnac *baiceuden* 298, 6.
 ZEUNDEN 'zeunden'. Egarrnac zu *ceunden* 298, 7.
 ZOAZI 'zoaz'. *zoaci* 291, 3.

LABURPENEA

Bi testu mota ematen ditugu ezagutzera, biak XVIII. mendekoak. Horietako bat 1747.ean agertu zen Salamanca-n; bestea edo besteak eskuz daude eta, dakigunez, Obanos aldetik datoz agian, herri hori Nafarroa-ko Izarbeibarrean, Gares-tik hurbil, dagoelarik kokaturik. Lehenbizikoa gipuzkeraz dago eta besteak Nafarroa-ko euskaraz. Ez dakigu noiz, nork eta non izan ziren idatziak

azkenekoak, baina suposatzen dugu idatziak izan ziren herrian S. Nikolasi eskainitako eliza edo baselizaren bat bazegoela, santu horren ereserkia baita-
kar bai euskaraz eta bai latinez.

RESUMEN

Publicamos dos clases de textos, ambos del s. XVIII. Uno fue impreso en Salamanca en 1747; el otro u otros están inéditos, y proceden, a lo que sabemos, de Obanos, situado en el valle navarro de Valdizarbe. Aquél está en guipuzcoano y los otros en navarro. Ignoramos la fecha, el autor y el lugar de su redacción, pero suponemos que la iglesia o alguna ermita de aquel pueblo estaba dedicada a S. Nicolás, pues aparece su himno tanto en vascuence como en latín.

RÉSUMÉ

Nous publions deux types de texte, les deux du 18ème siècle. L'un a été imprimé à Salamanque en 1747 et l'autre ou les autres sont inédits, et proviennent, d'après ce que nous savons d'Obanos, situé dans la vallée navarraise de Valdizarbe. Celui-ci est de Guipúzcoa et les autres de Navarre. Nous ignorons la date, l'auteur et le lieu de sa rédaction, mais nous supposons que l'église ou quelque ermitage de ce village était dédié à Saint Nicholas, puisque son hymne apparaît autant en basque qu'en latin.

SUMMARY

We publish several texts belonging to the 18th century. One of them was printed in 1747 in Salamanca, the other ones being unedited and proceeding as far as we know from Obanos, a village in the High-Navarrese valley Izarbeibar/Valdizarbe. The dated text belongs to the dialect spoken in Guipuzkoa, the other ones to that spoken in High-Navarre. We do not know the date, the author nor the place of their composition, but we suppose the parish church or some hermitage in that place was dedicated to S. Nicholas, because we find his hymn both in Basque and in Latin in the document.

